

"Etxea/Familia" ¹ (Mari Patxi Ayerra)

Familia maite hori:

Hilabete honetan, 'etxeaz' hitz egiten dihardugu, hainbeste esanahi duten hitz magiko horretaz... 'Bizilekua', hau da, hornez inguratutako eremua, berez, ez da familia-etxea, ez da sutondoa, biziz betetzen den arte, bertan bizi direnak beren arrastoak uzten hasten diren arte, lekuak beren



apaingarri, estilo eta zeinuz betetzen dituzten arte. Bizileku batzuk ezin direlako etxetzat, sutondotzat hartu; ezta munduko estilistik onenak apaindu baditu ere, estetikoak, ederrak, zoragarriak... izan daitezkeelako, baina bizirik, girorik, nortasunik, giza berotasunik ez dutelako. Gehienok gogoratzen dugu aiton-amonen etxeko usaina, apainketa berezia, haien ohiturak, txoko pertsonalak, gutarren presentzia eta usadioak, esate baterako, amona eta bere gailetak egin beharra, eta aitona laguntza-eske, eskuz egitea baino nekezagoa izanda ere, teknikaren azken aurrerapena zen makina magiko harekin zigarroak biltzeko.

Etxea, sutondoa, zirrarei, bizipenei, oroitzapenei lotuta dago. Etxea diogunean, bat baino gehiago etor dakiguke burura: orain bizi garena; garai batean bizi izan ginena edo haurtzaroan amesten genuena, adiskideren batena gurea baino familiartekoa iruditzen zitzaiguna, beharbada bizitzako beharren eraginez, ez zelako erraza familia bizitza egitea, norbait falta zelako, zoritxarren bat gertatu zelako eta, horregatik, erosoago sentitzen ginelako adiskidearen etxean.

Hainbat hotel-katek, zuhurtasunez, hiri desberdinetako hoteletako geletan apainketa bera jartzen saiatzen dira, bezeroei eremua ezagun, etxeko gerta dakien eta, neurri batean, beren etxean bezala senti daitezen. Dena dela, ezinezkoa da hori lortzea, norbere etxea, norbere etxekoei lotuta dago; norbere etxeak kidetasuna ematen du, erlaxatzeko, patxadan egoteko aukera ematen du; onarpena sentitzen da, ez dago plantetan ibili beharrik, atsegina da bertan egotea...

Ordu asko igarotzen da norbere etxean, makina bat gauza bizi eta gehiena konpartitzen da. Etxean, familiarteko hartu-emana izaten da, poztasunak eta iluntasunak, ametsak eta beldurrak, eguneroko behar handi eta txikiak azaltzen dira. Etxean, izatasuna, barkatzeko gaitasuna, kide bakoitzari osotasuna jadesteko aukera

¹ Iturria: <https://maripatxiayerra.wordpress.com/cartas-de-familia/el-hogar/>

izaten da. Familia osoaren babespean, nahigabe edo zailtasuna, elkartearen, familiaren, senide eta lagunaren, baldintzarik gabe maite gaituzten eta edozein abagunetan gure alde aurpegia emateko prest daudenen gozagarriarekin bizi da. Etxea, sutondoa, ez dutelako hormek edo apainketak egiten, bertan bizi direnek, eremu hori biziz betetzen dutenek baizik.

Senitartean, etxekotasunean bizi diren familia, talde edo elkarte guztietan izaten da denak elkartzen dituen, etxe horretako lokarriak estutzen dituen, bategitea eta intimitatea ahalbideratzen dituen pertsona esanguratsuren bat. Garai batean, ama, amona edo aita izaten zen... Gaur egungo familietan, ordea, ordu asko pasatzen dute kide guztiek etxetik kanpo, ikasten edo lanean, ordutegi amaitezinei aurre eginez eta kasu baten baino gehiagotan neskameak betetzen du egiteko hori eta haurrak etxean sentiarazten ditu eta harreragile eta abegitsu da helduentzat ere, nahiz eta, batzuetan oso ikasia ez izan. Kanpoko pertsona horrek jartzen ditu dantzan familia horren maitasun eta fintasuna.

Penagarria da jende askori etxera heltzean gertatzen zaiona: ez du atsedenik hartzen, ez da ondo sentitzen bertan, etxeko lan asko eta asko duelako egiteko, bai hurrengo eguneko lana edo hurrei etxerako lanak egiten laguntzea, dena izaten da presa, kexua, estutasuna, arinetan afaltzea... Gure ditxosozko ongizate-gizartean, balio handiegia eman diogu etxetik kanpo jateari, delako menu baten fintasunari, sukaldariburu entzutetsu baten sormenari, kozinatutako eta zerbitzatutako mahaiaren erosotasunari. Intimitatea galdu dugu, ez dugu familian hitz egiten, ez dugu elkarbanatzen, ez dugu elkarrekin jaten eta, ondorioz, ez diogu aldamenekoari jatekoa ateratzen, ez diogu mahaikideari jaramon egiten ezta ogia edo ura ematen, patxadarik gabe jaten dugu, presaka, jatatxean beti dagoelako norbait gure mahaiaren zain. Zerbitzuaren estetikan irabazi egingo genuen beharbada, baina zarata ugari jasotzen dugu trukean, etxekoen arteko solasaldia, haurren ateraldiez gozatzea, nagusiaren zailtasunez jabetzea galarazten digun zarata. Etxetik kanpo jatea garesti ordaintzen da: komunikaziorik eza, presa, intimitaterik eza, elkarrengandik urrun jartzea, ezkontzetan bezala, parekoarekin eta aldamenekoekin hitz egiteko moduan, baina gainerako senide eta lagunengandik aldentuta...

Mahaia, edo hobeto esanda, jatekoa, osagai garrantzitsua da "familia egitean". Jateko era, elikagaien kalitate eta kopurua, erosketari eta prestaketari eskaintzen zaien denbora eta ardura aldatu egiten dira etxe batetik bestera. Familia batzuk, jateko bizi direla ematen du, egun osoa kapritxo eta mokaduak jaten ematen dute, nahiz eta, azkenean, bakoitzak bere bandejarekin bere telebistaren aurrean amaitu... Eta telebistaren erakargarritasun handia kontuan hartuta, behin baino gehiagotan, han agertzen diren guztien zehaztasun guztiak jakiten dira eta ezer gutxi aldamenean jaten duen anai-arrebari edo seme-alabari buruz. Zorionez, badira 'topaketa gastronomiko' horiek zaintzen dituzten familiak ere; ahalik eta une gehienetan bat egiten saiatzen dira, elkarri bizitzako gorabeherak kontatzeko, batzuk besteengan atseden hartzeko, elkarrekin barre egiteko, ahalik eta gauza gehien konpartitzeko.



ez altxatu...

Biziki atsegin dut, urtebete inguruko txikiak mahaian jartzea; bakarrik jaten goitik behera lorrintzen badira ere, familian egoten ikasten dute, besteen erritmorra egokitzen, jatekoa, lekua eta bizia elkarbanatzen. Ez du balio, haurrek, aspertu egiten direla-eta, mahaitik joan behar dutela esateak. Besteek itxaroten ikasi behar dute, mahaia ipintzen lagundu, ogia banatu, asko gustatzen zaien zerbait erdibanatu, besteek nola erdibanatzen duten ikusi, denak elkartu arte itxaron eta bazkaltzen ez hasi, denek amaitu arte mahaitik

Etxea, sutondoa, familia... kanpokoei harrera eginez ere egiten da, mahai xumea konpartituz, mahaia elkarrekin bedekintuz, Jainkoa eta anai-arrebak agertzera emateko ohitura kutsatuz, mahaia denon artean prestatuz, bat sukaldetik atera ezinik egotea eta gainerakoak jantokira etorriko balira bezala hitz eta pitz egotea saihestuz, elkarlanean jardunez denak gustura egoteko modua aurkituz. Bankete handiak, ondo daude, baina are eta hobeak dira konpartitutako otorduak, "ekarri dut" horietakoak, guztien ekarpenarekin eratutakoak: "nik tortila ekarri dut, nik antxoak ekarri ditut...", nik apur bat, zuk beste apur bat, eta denon artean mahaia osatzen dugu eta ez dugu inoren gain uzten jende askorentzako jakiak prestatzeko ardura.

Azkenik, etxea, sutondoa, familia, intimitate eta maitasunez beteriko txokoa da. Egunaren azkenean, han dituzu zain etxeak, baldintzarik gabe harrera eginez; han hartzen duzu atsedean eguneroko neke eta arazoetatik, bizitzearen misterioetan lagun egiten dizuten bitartean. Etxea, itsasargiaren antzekoa da, etxeak, zure historia bizitza zentzuz betetzen duten zeinu txikiak, besteek emandako zoriona - geure zorion bihurtzen dena-,... non diren adierazten dizu. Etxean, elkarrenganako harridura bizi dugu, zalantzak, korapiloak, ezegonkortasuna, baretasuna, ilusioa, bizitasuna, bizitzari zentzua eta segurtasuna ematen dioten gauza txikiak...

Ezaugarri horiek guztiek nahiko nituzke nire etxea, sutondoa, familia eratzeko; eta ez bakarrik nirea, baita zeurea eta guztiona ere. Horixe da aurrez aurre dugun egitekoa, etxe hori eraikitzea, krisia, desberdintasuna eta bidegabekeria kentzeko eta mundua gizaki guztiontzako etxe handi bihurtzeko, den-deno ongi bizitzeko aukera emango digun etxe handi. Jainkoak aintzakotzat hartzen gaitu ETXE hori, giza familia handi hori eraikitzeko. Ekin diezaigun lanari! Besarkada bat!

Mari Patxi

- Zer diotsu idazkiak? Aipatu deigarrien gertatu edo gehien gustatu zaizkizun bizpahiru ideia.
- Bat zatoz etxearen, familiaren... ideia horrekin? Horrelako bat eraikitzea gustatuko litzaizuke? Zertan bai eta zertan ez?
- Zeintzuk dira, zure ustez, familia, etxea, eraikitzeko oinarrizko balioak? Aukeratu bospasei ideia nagusi.
- Zein zailtasun duzue familia "ideal" hori egiteko?
- Jainkoa azaltzen da zuen etxeetan, zuen familia bizitzan? Zertan nabaritzen edo zehazten da?

• Zer dio Jesusek Ebanjelioan?

“Baina zuei, entzuleoi, hau diotsuet: Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari, ez ukatu soinekoka ere. Eskatzen dizun edonori, eman, eta zeurea kentzen dizunari, ez bihurrarazi. Eta besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei. Maite zaituztetenak bakarrik maite badituzue, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere maite dituzte beren maitaleak. Eta ongi egiten dizuetenei bakarrik egiten badiezue ongi, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere egiten dute beste horrenbeste. Eta ordaina hartzekotan bakarrik ematen baduzue maileguz, zer esker on zor zaizue? Bekatariak ere aurreratu ohi diote elkarri, beste hainbeste hartzekotan. Ez! Zuek maitatu etsaiak, egin ongi eta eman maileguz ordainari begiratu gabe: handia izango da zuen saria eta Goi-goikoaren seme-alaba izango zarete, ona baita bera esker txarreko eta gaiztoentzat. Izan zaitetze errukitsuak, zuen Aita errukitsua den bezala” (Lukas 6, 27-36).



“Joan zitzaizkion Jesusi bere ama eta anai-arrebak, baina jendearen jendez ezin iritsi ziren berarenganaino. Eta jakinarazi zioten: Ama eta anai-arrebak dituzu kanpoan, zu ikusi nahian. Jesusek, berriz, esan zien: Hauek ditut nik ama eta anai-arreba: Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak” (Lukas 8, 19-21).

- Zer gehitzen diote idazki hauek familiaz dugun esperientzia eta “idealari”?
- Zein galera eragiten didate, zertara bultzatzen naute?
- Zerbait aldatu, sustatu, ahalbideratu... beharko nuke familia bizitzan, Ebanjelioan aurkezten den estiloaren arabera bizitzeko?